



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2019ko lehen hiruhilekoa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	13
Eranskina – Aurkibideak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26


EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- 2019ko 1.hiruhilekoa: euskal familien konfiantzaren bigarren datu onena
- inguruko familietan baino positiboagoa, inguruko horiek konfiantza galtzen ari baitira
- konfiantzak behera egin du Frantzian eta Erresuma Batuan; Alemanian, berriz, eutsi egin zaio

1 | 2019ko 1.hiruhilekoa: euskal familien konfiantzaren bigarren datu onena

Euskal familiek 2019ko lehenengo hiruhilekoan duten konfiantzaren indizea positiboa da (+2); funtsean, urteko laugarren hiruhilekoko balioa (+3) errepikatzen ari da (-1): hots, urtearen hasierako emaitzekin, euskal familien konfiantzak ondoz ondoko sei hiruhileko egin ditu balio positiboetan.

Ikuspegi zabalagotik begiratuta, nabarmendu beharra dago lehenengo hiruhileko hau datu hobekuntza ematen ari dela azken hiru urteetako lehenengo hiruhilekoak baino (-7, -3 eta +1 2016an, 2017an eta 2018an), nahiz eta horietan ere hobekuntza-joera atzeman daitekeen. Hortaz, euskal familien konfiantza azken urteetako abiapunturik onenean dago.




2 | inguruko familietan baino positiboagoa, inguruko horiek konfiantza galtzen ari baitira

2019ko lehenengo hiruhilekoan, estatuko (-6) eta EB-28ko (-8) familien konfiantza antzeko balioei eusten ari da, 2018an zehar ikusitako okerragotze-ildoari jarraikiz.

Zentzu horretan, euskal familien konfiantzaren bilakaerak ihes egiten dio emaitza horiei, antzeko balio positiboetan jarraitzen baitu (+2). Bilakaera horren aurrean, estatuko familiak bere horretan geratu dira, eta EB-28koek okerrera egin dute. Hala, bi kasuak daude neutraltasunetik urruntzeko sekuentzian sartuta.

Hazkunde ekonomikoaren eta enplegu-hobekuntzaren gaineko igurikimenak beheranzko norabidean daudela dioten berriek baldintzatu dute igurikimena horien eraketa, eta askotariko hauteskunde-deialdietatik nahiz konpondu gabeko beste gatazka geopolitiko mota batzuetatik (Brexit, merkataritza-gerrak...) eratorritako nolabaiteko ezegonkortasuna gaineratu behar zaio.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE, Estatu eta EB*



* IV. Lauhilabeteko datua behin behinekoa da EB-28 eta Espainiarentzako. Urria-azaroko batez bestekoa.


3 konfiantzak behera egin du Frantzian eta Erresuma Batuan; Alemanian, berriz, eutsi egin zaio

2019ko lehenengo hiruhilekoan, bere horretan jarraitzen du Frantziako (-13, +1 puntu) eta Erresuma Batuko (-11, -3 puntu) familien konfiantza-galerak. Are, bi kasuetan, azken lau hiruhilekoetan atzera egin dute pixkanaka, eta hobekuntza-profiletik urrundu dira; hau da, balio positiboetara hurbilduko dituen susperralditik urrundu dira.

Alemaniko familiek ere eszeptizismo-egoera erakusten dute (-2), baina leunago eta profil egonkorrekin.

Hainbat kontuk eragin bide diete emaitza horiei; hala nola, honako hauek: hainbat erakunde (NDFk, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak...) ekonomiaren eta enpleguaren hazkundearen inguruan egin dituzten beheranzko aurreikuspenek, ebatzi gabeko gatazka politiko edota sozialen inpaktuak edota kudeaketa publikoari eutsiko dioten gehiengo politikoak ezartzeko zailtasunak.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



* IV. Lauhilabeteko datua behin behinekoa da EB-28 eta Espainiarentzako. Urria-azaroko batez bestekoa.

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK


- egonkortasuna ekonomia orokorraren abiadaren gaineko konfiantzan
- langabeziak pixkanaka behera egingo duelako usteak jarraitzen du
- etxeko ekonomiaren gaineko igurikimena positiboa da dagoeneko
- eta atzerakada arina (seguru asko, koiunturala) aurrezpenaren igurikimenean
- euskal familiek konfiantza positiboarekin hasi dute 2019a

4 | egonkortasuna ekonomia orokorraren abiadaren gaineko konfiantzan

Urteko lehenengo hiruhilekoan, euskal familien % 52k (-6pp) uste dute datozen hamabi hilabeteetan egoera ekonomikoa orain bezala egongo dela. Iritzi hori osatzeko, euskal familien % 22k (-2pp) uste dute zertxobait hobera egingo duela, eta % 26k (+8pp) uste dute okerrera egingo duela.

Hala, ekonomia orokorraren gaineko konfiantzaren indizeak positiboa izaten jarraitzen du (+2, -1), eta aurreko hiru hiruhilekoetan erregistratutako indizeen antzeko balioetan dago.

Euskal familiek 2019ko lehenengo hiruhileko honetan ekonomia orokorraren abiadaren inguruan duten konfiantzaren profila 2016an (balio ez hain negatiboak) eta 2017an (balio positiboetarako jauzia) irabazitako lurraren gainean eraikitzen da, eta, oro har, datozen hilabeteetan egoera berberari egonkor eutsiko zaiolako konfiantza erakusten du horrek.




5 | langabeziak pixkanaka behera egingo duelako usteak jarraitzen du

Langabeziaren bilakaeraren inguruko konfiantzaren indizeak baikorra izaten jarraitzen du (+4, -3), eta, horrela, ondoz ondoko hamasei hiruhileko bete dira langabeziak behera egingo duela aurreikusten; hala ere, 2017ko bigarren hiruhilekotik, balio txikiena du orain.

Hortaz, euskal familien ustez, langabeziak behera egiten jarraituko du, eta igurikimen hori berresten dute 2019ko otsaileko emaitzek: urte arteko tasan, erregistratutako langabeziak behera egin du berriro (-% 5,8), eta gizarte-segurantzarako afiliazioak gora egin du (+% 1,8).

Enpleguaren gaineko igurikimenaren indize partzialaren bilakaera funtsezkoa da euskal familien konfiantzaren eraikuntzan, eta, hain zuzen ere, susperraldiaren oinarrian dago hobekuntza-ibilbidea.




6 | etxeko ekonomiaren gaineko igurikimena positiboa da dagoeneko

Etxeko ekonomiak datozen hamabi hilabeteetan izango duen bilakaeraren gaineko igurikimenaren indize partziala positiboa da (+1, +3); are, euskal familiei kontsulta hau egiten zaienetik (2014ko lehenengo hiruhilekotik), lehenengo datu positiboa da honakoa.

Erantsitako grafikoan ikus daitekeenez, euskal familiek etxeko ekonomiaren abiadaren gainean duten konfiantza hobetuz joan da pixkanaka, eta balio negatiboetatik urrundu da; hala ere, zuhurtzia handiz eman du balio positiboetarako urratsa.

Hausnartzeko: badirudi euskal familiek enpleguaren bilakaeran hiru urteko igurikimena positiboa behar izan dutela etxeko ekonomiaren igurikimena hobetzera (positiboan) igartzeko.




7 | eta atzerakada arina (seguru asko, koiunturala) aurrezpenaren igurikimenean

Euskal familien aurrezpenaren igurikimenearen indizeak datozen hamabi hilabeteetako aurrezpena nolakoa izatea espero duten adierazten du, jada egindakoarekin (azken hamabi hilabeteekin) alderatuta.

2019ko lehenengo hiruhilekoan, euskal familiek beren aurrezpenaren inguruan duten igurikimena negatiboa da (-1); beraz, pixka bat behera egin du (-4) 2018ko laugarren hiruhilekoan erregistratutakoari dagokionez (+3); dena dela, esan beharra dago 2018ko laugarren hiruhilekoan bakarrik izan dela indize hori positiboa.

Hala ere, nolabaiteko neutraltasunez begiratu behar zaio atzerakada arin horri, lehenengo hiruhilekoak izaten baitu urteko indize baxuena (-14, -12 eta -10 2016an, 2017an eta 2018an, urte bakoitzean izandako -12, -10 eta -5en aldean). Eta, batez ere, zuhurtziaz hartu behar da datua, datozen hiruhilekoek sekuentzia negatiboa berresten duten ikusi arte.

Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak



8 | euskal familiek konfiantza positiboarekin hasi dute 2019a

Euskal familien konfiantzak positiboan ekin dio 2019ari (2), 2018an erregistratutako antzeko mailetan (urteko batez bestekoa 1ekoa da). Konfiantza hori eratzten duten lau indize partzialek bilakaera zertxobait ezberdina izan dute, baina elkar orekatzen dute.

Hala, etxeko ekonomiaren gaineko konfiantzak balio positiboa izan du lehen aldiz (1, +3), eta aurrezpenaren emaitza zertxobait kaskarragoa konpentsatzen du (-1, -4). Bi indize horiek dira negatiboan gehien iraun dutenak, eta behin bakarrik sartu dira balio positiboetara.

Bestalde, euskal familiek ekonomia orokorraren abiadan duten konfiantzak balio positiboetan jarraitzen du (2, -1), baina ez du langabeziaren beherakada (-4) konpentsatzen, positiboa izaten jarraitzen baitu (4). Are, langabeziaren inguruko igurikimen indizeak ondoz ondoko hamasei hiru hileko egin ditu positibo.

2019an euskal familien konfiantza hobetzeko, etxeko ekonomiaren eta aurrezpenaren indizeak sendotu beharko dira (positiboan), testuinguruaren indizeek (ekonomia orokorra eta langabezia) hobekuntza-bidea egonkortu baitute.

Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	<u>2016</u>	<u>2017</u>	<u>2018</u>	<u>IIH-18</u>	<u>IIIH-18</u>	<u>IVH-18</u>	<u>IH-19</u>	<u>aldea</u>	
Familien konfiantza	-5	1	1	2	-0,5	3	2	-1	▶
Ekonomia orokorra	-7	6	3	3	1	3	2	-1	▶
Etxeko ekonomia	-5	-5	-4	-3	-4	-2	1	+3	▲
Langabeziaren bilakaera	6	12	10	15	5	7	4	-3	▼
Aurrezteko gaitasuna	-12	-10	-5	-7	-5	3	-1	-4	▼



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- euskal familiek uste dute prezioak orain arte bezala haziko direla
- erosketa-unearen gaineko balorazioaren hobekuntza handiarekin
- eta «erosketa handiak» egiteko igurikimena positiboa da dagoeneko
- etxebizitza edo autoa erosteko asmoak bereari eusten dio
- Euskal familiek kontsumoa areagotuko dutela dirudi




9 euskal familiek uste dute prezioak orain arte bezala haziko direla

Bi familiatik batek uste du prezioek azken hamabi hilabeteen antzera egingo dutela gora (% 54), aurreko hiruhilekoan baino ehuneko zertxobait handiagoan (% 51). Bestalde, behera egin du prezioen igoera handiagoa balioesten dutenen ehunekoak (% 32), eta gora egin du prezioen igoera motelagoa izango dela uste dutenena (% 12tik % 14ra).

Hala, datozen 12 hilabeteetarako prezioen bilakaeraren gaineko igurikimenaren indizeak 8 puntu berreskuratu ditu 2019ko lehenengo hiruhilekoan, eta -17n geratu da. Balio negatiboa izaten jarraitzen duen arren, ez dirudi inflazio-gorakada berezi bati erantzuten dionik, 2017an eta 2018an erregistratutako balioen antzera jarraitzen baitu (batez beste, -17 eta -18, hurrenez hurren).

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?² (pertsonek %a)




¹ Azken 12 hilabeteetarako dagokienez.

10 | erosketa-unearen gaineko balorazioaren hobekuntza handiarekin

Oro har, nola baloratzen duzu gaur egungo unea, etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteari dagokionean?

2019ko lehenengo hiruhilekoan, hiru familiatik bik (% 62) uste dute gaur egungo unek ez duela axola etxerako edo norberarentzako erosketa handitxoak egiteari dagokionez. Bestalde, gora egin du erosteko une ona dela uste dutenen taldeak (% 18), eta behera egin du une txarra uste dutenenak (% 20).

Hala, erosteko unearen balorazioak negatiboa izaten jarraitzen badu ere (-2), hobekuntza-bidean jarraitzen du (+5), eta aurreko lau hiruhilekoetan erregistratutako balioetatik urrundu da (-7, -15, -11 eta -5, 2018ko lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan).



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez


11 eta «erosketa handiak» egiteko igurikimena positiboa da dagoeneko

Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola, altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan?

2019ko lehenengo hiruhilekoan, gora egin du beren erosketak aurreko hamabi hilabeteetan egindakoen antzekoak izango direla uste duten familien kopuruak (% 67, +8pp), baina sendotu egin da zertxobait edo askoz handiagoak izango direla uste dutenen taldea (% 20, +3pp). Erosketak zertxobait edo askoz txikiagoak izango direla uste dutenen taldeak, berriz, behera egin du (% 13, -12pp).

Hala, etxeko erosketa handien gaineko igurikimenen indizea positiboa da, 2014ko lehenengo hiruhilekotik lehen aldiz (3, +11). Dena dela, datozen hiruhilekoetako emaitzen zain egon behar dugu, indizea bide positiboan sartu dela ziurtatzeko.

Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹
(pertsonek %a)




¹ Azken 12 hilabeteekin alderatuz.

etxebizitza edo autoa erosteko asmoak bereari eusten dio

2019ko lehenengo hiruhilekoan, euskal kontsumitzaileen % 2,4k adierazi dute datorren urtean etxebizitza bat erosteko asmoa dutela, azken bi hiruhilekoen antzera. Dirudienez, gutxikagutxika, joera hobera egiten ari da nolabait, euskal familien % 1,8k baino gehiagok baitauka etxebizitza erosteko asmoa (2017ko eta 2018ko batez bestekoa da hori).

Etxebizitza erosteko asmoa


(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)



2019ko lehenengo hiruhilekoan, euskal familien % 6k adierazi dute ibilgailua erosteko asmoa dutela. Aurreko hiruhilekoetan izandako proportzioaren oso antzekoa da, baina, egiazki, pixkanaka sendotuz doa, inbertsio horri begira duden familien segmentua egonkortzen ari baita.

Ibilgailua erosteko asmoa

(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)



13 Euskal familiek kontsumoa areagotuko dutela dirudi

Laburpen modura, 2019ko lehenengo hiruhilekoan, euskal familiak:

- Itxaropentsu daude prezioen gorako bilakaerari dagokionez: nabarmen murriztu da indizea (-17), aurreko lau hiruhilekoetakoa baino txikiagoa baita.
- Erosteke unearen gaineko iritzia hobetu dute (+5): oraindik negatiboa den arren (-2), 2014ko lehenengo hiruhilekotik egondako erregistro onena da.
- Nabarmen hobetu dute erosketa handien gaineko igurikimena (+11), erosketa handiagoei begiratzen dien taldeak gora egin baitu erlatiboki.
- Autoa edota etxebizitza erosteko asmoaren gaineko igurikimena sendotu dute: etxebizitza (% 2,5) edo ibilgailua (% 6,0) erosteko asmoa adierazi duten familien ehunekoak egonkortu dira, aurreko hiruhilekoetan erregistratutako balioak pixkanaka hobetuz.

Laburtuz, euskal familiek 2019ko lehenengo hiruhilekoan eman duten iritziaren arabera, kontsumo (handia) hobetuko da, eta, beraz, bi indizeek (erosteko unearen balorazioari buruzkoak eta, batez ere, erosketa handiak egiteari buruzkoak) hobekuntza handia erakutsi dute.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	<u>2016</u>	<u>2017</u>	<u>2018</u>	<u>II H-18</u>	<u>III H-18</u>	<u>IV H-18</u>	<u>I H-19</u>	<u>Aldea</u>	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	13	-17	-23	-18	-23	-25	-17	8	▲
Erosteke unearen balorazioa	-8	-2	-9	-11	-15	-7	-2	5	▲
Erosketak egiteko igurikimenak	-10	-7	-6	-6	-5	-8	3	11	▲


¹ 2014, ICC neurriaren hasiera momentua

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazleak



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2017	2018	II H-18	III H-18	IV H-18	I H-19	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	1	1	2	-0,5	3	2	▶
• Estatua*	-3	-4	-3	-4	-6	-6	▶
• EB*	-6	-5	-5	-5	-6	-8	▶
○ Frantzia*	-6	-10	-8	-10	-14	-13	▶
○ Alemania*	-1	-1	-1	-1	-2	-2	▶
○ Erresuma Batua*	-7	-7	-6	-6	-8	-11	▼
Osagaiak: familien konfiantza. EAE							
• Ekonomia orokorra	6	3	3	1	3	2	▶
• Etxeko ekonomia	-5	-4	-3	-4	-2	1	▲
• Langabezia	12	10	15	5	7	4	▼
• Aurrezkia	-10	-5	-7	-5	3	-1	▼
Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk. EAE							
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-17	-23	-18	-23	-25	-17	▲
• Erosteke unearen balioztapena	-2	-9	-11	-15	-7	-2	▲
• Erosketak egiteko igurikimena	-7	-6	-6	-5	-8	3	▲
Erosketa handiak. EAE.**							
• Etxebizitza	1,8	1,8	1,6	2,5	2,0	2,4	▶
• Autoa	4,8	5,3	5,7	5,9	5,8	6,0	▶

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* IV. hiruhileko datuak urria-azaroko batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2017	2018	II H-18	III H-18	IV H-18	I H-19	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	1	1	2	-0,5	3	2	▶
Adin-mailak							
• 25 eta 39 urte bitartean	5	6	8	5	7	8	▶
• 40 eta 54 urte bitartean	2	2	2	1	4	3	▶
• 55 eta 64 urte bitartean	0	0	0	0	2	0	▶
• 65 eta 74 urte bitartean	-5	-7	-3	-12	-4	-9	▼
Lan egoera							
• Landuna (soldatapekoa/ norberaren konturakoa)	6	6	6	6	6	7	▶
• Langabea	-7	-8	-8	-13	-5	-7	▶
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-4	-4	-2	-9	-1	-4	▼
Familia-unitatearen hileko errenta							
• 1.700 €-rainokoa	-14	-14	-14	-14	-10	-10	▶
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	2	3	4	2	4	5	▶
• 2.800 €-tik gorakoa	15	12	13	9	11	9	▶

⇒ (±2 puntuko aldea)

III Beste adierazleak

	I H – 18	II H – 18	III H – 18	IV H – 18	I H – 19 _p	(azkena)
BPG	3,1	2,9	2,6	--		III hir.
Familien kontsumoa	2,9	2,6	2,3	--		III hir.
Afiliazioa	-0,2	1,2	-0,9	1,9	-0,6	otsaila
Erregistratutako langabezia	-0,8	-3,8	-0,1	-1,1	-0,7	otsaila
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	0,3	1,3	0,1	2,7	--	IV hir.
Etxebizitzen salerosketa	40,7	-1,6	-2,4	-12,4	--	abendua
Ibilgailuen matrikulazioa	-4,8	8,3	-10,2	-5,2	-10,1	otsaila

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoia) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ Consumer Confidence Indicator, dokumentu honetan aipatzen dena familien konfiantzaren indize bezala, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAeko 800 laguni egin zaie.
- Otsailaren 11tik 23ra (2019ko I. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm